

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Gaurko Jupiter

JUGLANS REGIA, intxaurrondoak bere jario desatsegina inguruetan agintzen du. Pozoiak beste landareak atzeratzen ditu eta bakarrik, nagusi bizi da, jatenik kenduko dionik gabe. Agintari guztien gisara bakarrik, bakarturik bizitzera jarria da. Pozoiaz, agintekeria eta bakardadeaz gutxi bezala zekiten erromatarrek emana da *Juglans* izena. Latinez intxaurrea esateko hitza da eta *jovis* (Jupiter) eta *glans* (ezkur) hitzetatik dator, hau da, Jupiterren ezkurra da intxaurrea. Azak ontzeko, *regia* hitzak errege, hotsandiko esan nahi du.

Jupiter jainko nagusia zen erromatarrentzat, grekoen Zeusen ordainekoa. Harluxet entziklopediak honela dio: “Zeruaren eta argiaren jainkoa zen, lurreko ondasunen banatzailea eta hiri eta estatu erromatarren babeslea. Erromako Kapitolioko tenplua berari eskaini zioten, eta bertatik babesten zuen estatu erromatarra; bertan egiten zuten kontsulek beren karguaren zina. Era berean, zuzenbidearen eta esta-

tuarekiko, familiarekiko eta jainkoekiko eginbeharren zaintzailea zen. Inperioaren garaian enperadore eta estatuburuaren babesle berezitat hartzen zuten Jupiter”.

Inperio haren ekonomiak, lehen hemen bagenituen laboreak eta berak ekarri zituen mahatsa (*Vitis vinifera*) eta olibondoa (*Olea europaea*) zituen oinarri. Inperio hark ekarri zuen geurera intxaurrondoak, bere erlijioari eta estatuari zor zitzaion gurtzaren adierazle. Eta harrezkero gure kultura atlantiarra mediterraneartu besterik ez dugu egin: sagardoaren ordeaz ardo txar horiek besterik ez ditugu gurtzen eta gure etxe atarietako milaka urtetako odolaren adierazle diren arte (*Quercus ilex*) eta hagin (*Taxus baccata*) mitikoak eraitsi eta intxaurrondoak jartzen ditugu. Eta inperio berriei, estatuaren babeslearen gurtza kokatzeko, toponimo ezin euskaldunagoak, ezin egokiagoak eskaintzen dizkiegu: Intxaurrondo.



JAKOBA ERREKONDO

Evorako itsasoa

Itsasoa du Alentejoko Evorak, garai bateko Eborak. Udako solstizioan besterik ez, baina itsasoa. Atlantikotik ehunen bat kilometrora egonagatik, evorarrak marinela sentitzen dira. Espaloietan barrena urdina zabalduz luzatzen dio hiriak udari ongi etorria. Geurean gaztainondoa (*Castanea sativa*) bezala, urteko egunik luzeene-

tan loratzen dira Evoran jakarandak (*Jacaranda mimosae-folia*). Ubel urdin dotore etxe zuri eta granito dotorezko kale tarte zaharretan. Ia berrogei gradutako berotan usainak erotu egiten du bat, edozertarakotu. Eta egunero euria, bero handiengan lore-euria. Erleak, lorez lore, lurrean dabilta.